Zarauzko Udala

ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA		**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS DE CONTRATO DE SERVICIOS**
UDALEKU IREKIAK" PROGRAMAREN KUDEAKETA **2023IK200002**		**GESTIÓN DEL PROGRAMA DE "COLONIAS ABIERTAS"** **2023IK200002**
1.XEDEA 1.1. Zarauzko udalerrian udaleku-zerbitzua adjudikatzeko deialdia zuzenduko duten baldintza teknikoak arautzea da agiri honen xedea. Kontratua gauzatzeko, honakoa egin beharko da: udalekuen kudeaketa, arreta-lanak, antolamendua eta funtzionamendua. 1.2. Zerbitzuaren helburuak: - Helburu nagusia haurrak aisialdian ere euskaraz aritzea da. Aisialdian euskararen erabilera sustatu eta bermatu nahi da, euskaraz bizi nahi duten haurrei horretarako aukera emateko, eta hizkuntzarekin zailtasunak dituzten haurrei eta eskolatik kanpo euskaraz hitz egiteko aukera gutxi dutenei jolastu bitartean euskaraz aritzeko gune bat eskaintzeko. Aisialdi-zerbitzu hau euskaraz eta euskal kulturan oinarrituta eskainiko da inguru-hezitzaile batean, eta euskararen erabilerarekin batera, haurren garapen integrala ere bultzatuko da jolasen eta ekintza ludikoen bitartez. - Helburu nagusi hori erdiesteko, honako helburu zehatzak bete beharko dira: 1.-Euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik haratago eraman eta aisialdia bezain erabilera-eremu garrantzizkoetara zabaltzea. 2.-Euskararen aldeko ekintza soilen ordez, inguru hezitzailean eskaintzea aisialdi-zerbitzuak: herria, nortasuna, kultura, herri-kidetasuna, kondaira eta hizkuntza elkartuz, alegia. 3.-Euskal kultura eta tradizioari lotutako ekintzak bultzatzea. 4.-Herriko ikastetxeetako arduradunekin eta udal teknikariekin (euskara teknikaria,		1. OBJETO 1.1. Es objeto del presente pliego establecer las condiciones técnicas reguladoras de la convocatoria para la adjudicación de gestión del programa de colonias abiertas organizadas por el Ayuntamiento en el municipio de Zarautz. La ejecución del contrato consiste en la gestión, el servicio de atención, organización y funcionamiento de las colonias. 1.2. Objetivos del servicio - El objetivo principal es que los niños y las niñas utilicen el euskera en su tiempo de ocio. Se pretende fomentar y garantizar el uso del euskera en el ocio, para que los niños y las niñas que lo deseen puedan vivir en euskera y para ofrecer un espacio de ocio en euskera a aquellos niños y niñas que tengan dificultades con el idioma y a los que apenas tienen ocasión de practicarlo fuera del contexto de la escuela. Este servicio de ocio se ofrecerá en euskera, y se basará en la cultura vasca, en un entorno educativo, en el que, además del uso del euskera, se impulsará el desarrollo integral de los niños y las niñas, mediante juegos y actividades lúdicas. - Para alcanzar ese objetivo general, se deberán cumplir los siguientes objetivos específicos: 1.-Llevar la oferta de servicios en euskera más allá del ámbito escolar y extenderla a espacios de uso tan importantes como el ocio. 2.-En lugar de acciones aisladas a favor del euskera, ofrecer los servicios de ocio en entornos educativos que integren pueblo, identidad, cultura, comunitarismo, historia y lengua. 3.-Impulsar acciones relacionadas con la cultura y tradición vascas. 4.-En colaboración con las personas responsables de las escuelas y con el personal técnico municipal (técnica de Euskera, técnico

immigrazio teknikaria…) elkarlanean, euskararik ez dakitenak edo euskararekin zailtasunak dituztenak identifikatzea eta arreta berezia eskaintzea, euskara bereganatzen eta haren erabilera handitzen joan daitezen nahiz lagun-talde euskaldunetan integratzen joan daitezen. 5.-Udalekuak antolatzerakoan, adin tarte bakoitzaren ezaugarriei egokitutako programazioa egitea. 6.-Jolasa edo ekintza ludikoa denbora librerako baliabide hezitzaile eta sortzaile bezala erabil dezaten bultzatzea. 7.-Haurraren garapen kognitiboa, psikomotorea, sortzailea eta afektiboa sustatuko duten jarduera ludikoak sortzea eta bideratzea. 8.-Protagonismoa haurrari berari ematea, zertan eta nola jolastu nahi duen berak erabaki dezan, heldu hezitzailearen erantzukizuna sustatzearena izango delarik. 9.-Haurren autonomia lantzea. 10.-Ondorengo ardatzekin zerikusia duten ohiturak eta jarrera irizpideak sustatzea: errespetua, elkarbizitza, talde-lana, lankidetza, erantzukizuna, autonomia, berdintasuna, solidaritatea, aniztasunaren baloreak indartzea, tolerantzia, bakerako hezkuntza eta aniztasunarekiko errespetua. 11.-Osasunerako heztea, egunerokotasunetik hasita higiene ohiturak sustatuz. 12.-Haurrengan ekintza berritzaileak sustatzen dituzten egoera eta tresna hezitzaileak ahalbidetzea. 13.-Inklusioaren ikuspuntutik ezintasun fisiko, psikiko edo sentsorialak dituzten haurrak integratzea. 14.-Zerbitzuarekiko elkarbizitza egoki bat izatearen alde jokatu, ezberdintasunarekiko eskubidea errespetatuz. 15.-Elkar harremanetarako espazioak eskaini talde naturaletan lan eginaz, haurren integrazioa laguntzen duten aspektuak bultzatuz. 16.-Prebentzio inespezifiko baten ikuspuntutik lan egin, inguruko haur populazioaren beharrak antzemanaz.		de Inmigración…), identificar a las personas que no sepan o tengan dificultades con el euskera y ofrecer una atención especial para que vayan interiorizando el euskera e incrementando su uso o que vayan integrándose en grupos de amigos y amigas euskaldunes. 5.-A la hora de organizar las colonias, elaborar programaciones adaptadas a las características de cada franja de edad. 6.-Impulsar el uso del juego y de la actividad lúdica como instrumento educativo y creativo para el tiempo libre. 7.-Crear y dirigir actividades lúdicas que fomenten el desarrollo cognitivo, psicomotor, creativo y afectivo de niños y niñas. 8.-Ceder el protagonismo a los niños y a las niñas, para que decidan libremente a qué y cómo quieren jugar, siendo la responsabilidad de la persona adulta educadora su promoción. 9.-Trabajar la autonomía del niño y de la niña. 10.-Promover hábitos y criterios de actitud relacionados con los siguientes valores: respeto, convivencia, trabajo en grupo, colaboración, responsabilidad, autonomía, igualdad, solidaridad, refuerzo de los valores de diversidad, tolerancia, educación para la paz y respeto hacia la diversidad. 11.-Educar para la salud, empezando desde la cotidianidad y promoviendo hábitos de higiene. 12.-Posibilitar situaciones e instrumentos educativos que impulsen actividades innovadoras en los niños y en las niñas. 13.-Desde el punto de vista de la inclusión, integrar los niños y las niñas con incapacidades físicas, psíquicas o sensoriales. 14.-Actuar a favor de una adecuada convivencia respecto al servicio, respetando el derecho hacia lo diferente. 15.-Ofrecer espacios de interrelación, trabajando en grupos naturales, impulsando aspectos que contribuyan a la integración del niño y de la niña. 16.-Trabajar desde un punto de vista de prevención inespecífica, detectando las necesidades de la población infantil del entorno.

17.-Neska eta mutilen arteko aukera berdintasuna bermatu zerbitzuan, baita zerbitzutik bideraturiko ekimen guztietan ere.		17.-Garantizar en el servicio la igualdad de oportunidades entre niñas y niños, así como en todas las iniciativas guiadas desde el servicio.
1.3. Zerbitzuaren hartzaileak:		1. 3. Personas destinatarias del servicio
Zerbitzu hauen hartzaileak Zarautzen erroldatutako ondorengo hauek izango dira: - Uztaileko eta abuztuko udaleku irekiak: HH5 eta LH6 bitarteko haurrak (biak barne). Lekurik balego, kanpotik Zarautzera uda pasatzera etortzen diren maila horietako haurrak ere onartuko lirateke		Las destinatarias del servicio serán las siguientes personas empadronadas en Zarautz: - Colonias abiertas de julio y agosto: Niños y niñas de entre 5º de educación infantil a 6º de primaria (ambos incluidos). En caso de que hubiera espacio suficiente, se admitirían niños y niñas de esas edades que siendo foráneos, veraneen en Zarautz.
2. ZERBITZUA EMANGO DUTEN LANGILEAK		**2. PERSONAL DEL SERVICIO**
2.1.Zerbitzuak modu egokian eskaini ahal izateko, lan talde egoki bat jarriko du adjudikaziodunak. Gutxienez, langile hauek arituko dira zerbitzuan:		2.1. La empresa o entidad adjudicataria deberá disponer del necesario equipo de trabajo para la adecuada prestación del servicio. En los servicios deberán trabajar las siguientes personas:
Uztailean, 180 haurrekin gehienez, enpresa adjudikaziodunak jarri beharko ditu: -zuzendari bat. -bi koordinatzaile. -begirale bat 10 haurreko. Abuztuan, gehienez 60 haurrekin: -zuzendari bat -koordinatzaile bat. -begirale bat 10 haurreko.		La empresa adjudicataria pondrá en julio, para un máximo de 180 niños y niñas: - un director/a. - dos personas coordinadoras. - una persona monitora por cada 10 niños/as En agosto, para un máximo de 60 niños/as: - un director/a, - una persona coordinadora - una persona monitora por cada 10 niños/as
2.2. Zerbitzu horietan lan egingo duten langileek gutxienez Batxillergoa edo Lanbide Heziketa II mailako ikasketak izango dituzte.		2.2. El personal empleado que vayan a trabajar en estos servicios deberán al menos disponer de estudios de Bachillerato o Formación Profesional II.
Horretaz gain, %70k aisialdian edota haurtzaroan zein gazteriaren alorretan prestakuntza espezifikoa izan beharko dute, hau da, Aisialdiko begirale titulua edo baliokidea.		Asimismo, el 70%deberá contar con formación específica en ocio en infancia o juventud, es decir, título de monitor/a de tiempo libre o equivalente.
Zuzendariak haur eta gazteen aisialdirako hezkuntza jardueretarako zuzendari titulua edo baliokidea izan beharko du.		El director/a deberá disponer del título de director/a de ocio en infancia o juventud o equivalente.

ZARAUZKO UDALA

3. ZERBITZUAREN EPEAK ETA XEHETASUNAK	**3. PLAZOS Y DETALLES DEL SERVICIO**
UDALEKU IREKIAK antolatu beharko dira, eta programazioa lantzeko orduan kontuan hartu beharko dira hizkuntza normalizazioa, dibertsitatearen tratamendua, genero ikuspegia, aukera berdintasuna eta integrazioa.	Este servicio consiste en la organización de las COLONIAS ABIERTAS; en la elaboración de la programación se tendrán en cuenta aspectos como la normalización lingüística, el tratamiento de la diversidad, la perspectiva de género, la igualdad de oportunidades y la integración.
Lanak bere ezaugarri bereziak ditu, ondoren zehaztuko direnak:	El trabajo tiene sus propias características especiales, que se detallan a continuación:
a)Haurrekin lana uztailean eta abuztuaren lehen hamabostaldian egin behar da, baina udalekuen prestaketa lanak, taldeak osatzea, programazioa, e.a. ekainean zehar egingo dira. Abuztuko udalekua amaitutakoan beste hamar egun izango dituzte udalekua itxi eta memoria aurkezteko.	a)En julio y primera mitad del mes de agosto se trabajará con los niños y niñas, pero los trabajos de la preparación de las colonias, la matriculación, la formación de grupos, la programación, etc se realizarán a lo largo del mes de junio. Para los trabajos de cierre del servicio y memoria, se concederá otra semana, la posterior a la finalización de la colonia de agosto.
b)Ordutegia 09:00etik 13:15era izango da, astelehenetik ostiralera. Haurrekin, 09:30-13.00 bitartean. Gainerakoa, koordinazio lanak egiteko.	b)El horario será de 09:00 a 13:15, de lunes a viernes. Con los niños y niñas, de 09:30 a 13:00. El resto será trabajo de coordinación.
c)Taldeak adinaren arabera osatuko dira eta gehienez 180 matrikula onartuko dira uztailean eta 60 matrikula abuztuan.	c)Los grupos se formarán según la edad, y se admitirán como máximo 180 matrículas en julio y 60 matrículas en agosto.
d)Hizkuntza behar bereziak dituzten haurrek sarbide zuzena izango dute, baldin eta ikasturtean zehar euskararen ezagutza edo erabilera sustatzeko programaren batean parte hartu badute eta Jarraipen Batzordeak bere oniritzia ematen badu. Jarraipen Batzorde hori, besteak beste, udaleko teknikariek, ikastetxeetako ordezkariek eta jarduerarен arduradunek osatuko dute. Gainerako haurrekin zozketa egingo da.	d)Aquellos niños y niñas con necesidades lingüísticas especiales tendrán acceso directo, siempre que durante el curso escolar hayan participado en algún programa de promoción del conocimiento y el uso del euskera y dispongan del visto bueno de la Comisión de Seguimiento. Dicha Comisión de Seguimiento estará integrada por personal técnico del Ayuntamiento, representantes de las escuelas y responsables de la actividad. Con el resto de niños y niñas se efectuará un sorteo.
e)2. Puntuan azaldu bezala, uztailean, gehienez 180 haurrekin, enpresa esleipendunak ondokoak jarri beharko ditu: zuzendari bat, bi koordinatzaile eta begirale	e)Como se indica en el punto 2, la entidad o empresa adjudicataria pondrá en julio para un máximo de 180 niños y niñas, un director/a y dos personas coordinadoras, además de un

bat hamar haurreko. Abuztuan, gehienez 60 haurrekin, zuzendari bat, koordinatzaile bat eta begirale bat hamar haurreko.	monitor/a por cada 10 niños y niñas. En agosto, para un máximo de 60 niños y niñas, un director/a, un coordinador/a y un monitor/a por cada 10 niños y niñas.
f)Bestetik, dibertsitate funtzionala dela-eta, mendekotasun egoeran dagoen haurrik balego, beharrezko begiraleak jarri beharko dira beraien arretarako, mendekotasun mailaren arabera, ratioa 1-1 edo 2-1ekoa izan ahalko delarik. Orientazio gisa ratio hauek ezartzen dira:	f)Por otro lado, en cuanto a la diversidad funcional, en caso de que haya algún niño o niña dependiente, deberán contar con los monitores o monitoras necesarios para su atención según su grado de dependencia, con un posible ratio de 1-1 o 2-1. Se establecen los siguientes ratios orientativos:
-Mendekotasun arina edo/eta ertaina duten haurrak: begirale 1, bi haurrekiko, biak talde berean joateko aukera izanez gero.	-Niños o niñas con dependencia leve y/o media, 1 monitor o monitora por cada dos niños o niñas, cuando los dos niños y niñas puedan ir en el mismo grupo.
-Mendekotasun larria dutenen arretarako: 1-1 ratioa, haur bakoitzeko begirale bat	-Ratio de 1-1, para niños o niñas con dependencia grave 1 monitor o monitora por cada niño o niña
Salbuespen gisa, beharrezko laguntzazko begiraleak jarriko dira, mendekotasuna eskatuta baina oraindik ebazpenik ez duten kasuetan edota baita laguntza beharra arrazoituz txosten medikoa duten kasuetan ere.	Excepcionalmente, se contará con monitores o monitoras de apoyo necesarios para aquellos casos en los que, aunque se haya solicitado la dependencia, aún se encuentren pendientes de resolución. o exista un informe médico que justifique esa necesidad de apoyo.
Udalak izena emateko epe bat zabalduko du, bost lanegunekoa; ordainketa izen-ematearekin batera egingo da. Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, onartutako eta baztertutakoen zerrenda onartuko da hurrengo hiru egunetan, eta sarbide zuzenekoak zeintzuk diren erabakiko. Gainerakoekin zozketa egingo du.	El Ayuntamiento abrirá un plazo de inscripción de cinco días laborables; el pago de la matrícula irá a la par de la inscripción. Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, durante los siguientes tres días se aprobará la relación de admitidos y excluidos, y acordará cuales son de acceso directo. Con el resto se hará un sorteo
Erreklamaziorik egiten ez bada, zozketarako partaideen behin-behineko zerrenda behin betikotzat hartuko da. Erreklamaziorik egonez gero, balioetsi edo ezetsi egingo dira; eta, behin betiko zerrenda argitaratuko da.	Las listas provisionales se entenderán automáticamente elevadas a definitivas si no se producen reclamaciones. Si las hubiere, serán aceptadas o rechazadas, y se procederá a la publicación de la lista definitiva.
4. ENTITATE EDOTA ENPRESA KONTRATISTAREN EGINBEHARRAK:	**4. OBLIGACIONES DE LA ENTIDAD O EMPRESA ADJUDICATARIA:**
a) Kontratazioaren helburuei eta bertan ezarritako mugei dagokienez, zerbitzua egokitasunez betetzea.	a)Con respecto a los objetivos de la contratación y los límites determinados en la misma, la empresa o entidad contratista deberá cumplir con el servicio adecuadamente.

b) Hezkuntza departamentuak emandako aginduak betetzea. c) Zerbitzu honetan erabili beharreko dokumentu guztietan Zarauzko Udalaren armarria erabiliko da. d) Umeen asistentziaren jarraipen zehatza egingo da. Fakturarekin batera asistentzia-orriari dagokion txostena aurkeztu beharko da. e) UDALEKU IREKIAK eskaintzea uztailaren 1etik 30era arte eta abuztuaren 1etik 14ra arte. f) Entitate edota enpresa kontratistak zerbitzua eskainitako baldintzetan eman beharko du. g) Partaide guztien segurtasuna eta osotasuna bermatuko du une oro. h) Euskaraz egingo da jarduera. i) Zerbitzuaren jarraipena egiteko Jarraipen Batzordean parte hartzea eta proposamenak egitea, eta ondoren, Hezkuntza departamentuari txosten teknikoa entregatzea, udalekuak amaitu eta hamar eguneko epean. j) Erabiltzen dituzten lokalak eta materialak egoera onean eta txukun edukitzea, ondo zaintzeko bitartekoak erabiliz. Ondo zaintzeaz ulertuko da, beste batzuen artean, eguneroko garbiketa eta zainketa. k) Udalekuetako jardueretarako behar den materiala esleipen hartzaileak erosiko du eta esleipen hartzailearen kontura izango da.		b)Cumplir las órdenes dadas por el Departamento de Educación. c)En todos los documentos que se utilicen en este servicio aparecerá el escudo del Ayuntamiento de Zarautz. d)Se llevará un seguimiento exhaustivo de la asistencia de niños y niñas. Junto con la factura se deberá presentar el informe correspondiente al impreso de asistencia. e)Deberá ofrecer el servicio de colonias abiertas desde el 1 al 30 de julio y desde el 1 al 14 de agosto. f)La empresa o entidad contratista deberá prestar el servicio en las condiciones ofertadas. g)Se deberá garantizar en todo momento la seguridad e integridad de todos los participantes. h)La actividad se desarrollará en euskera. i)Para realizar el seguimiento del servicio, deberá tomar parte en la Comisión de Seguimiento, realizar propuestas y entregar al Departamento de Educación un informe técnico, en un plazo de 10 días desde la finalización del servicio. j)Deberá mantener los locales y materiales utilizados en perfecto estado, utilizando los medios necesarios para su conservación. Se entiende como buena conservación, entre otras cosas, la limpieza y el cuidado diarios. k)La adjudicataria se encargará de la compra del material necesario para la actividad de las colonias, que será a su cuenta.
5. ZARAUZKO UDALAREN EGINBEHARRAK: Zarauzko Udalak ondorengoak bete behar ditu: a) Matrikulazio eta kobraketa-lanak, eta zabalkunde kanpaina. b) Jarduerak gauzatuko diren eraikinak		**5. OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ**: El Ayuntamiento de Zarautz tendrá que: a)Realizar los trabajos de matriculación y cobro, y campaña de difusión. b)Limpiar los edificios en los que se desarrollen las

garbitzea, jarduerak irauten duen bitartean.		actividades, mientras dure la actividad.
c) Kontratatutako zerbitzuen funtzionamendu egoki baterako entitate edota enpresa kontratistak behar dituen laguntza eta aholkuak ematea.		c)Ofrecer la ayuda y los consejos que necesite la empresa o entidad contratista para que los servicios contratados funcionen correctamente.
d) Kontratuaren xedearekin zerikusia duen beste edozein laguntza eta aholkularitza ematea.		d)Cualquier otro tipo de asistencia y asesoramiento relacionado con el objeto del contrato - .